

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

101/2020 Foru Agindua, martxoaren 16ko 57/2020 Foru Agindua ondoriorik gabe uztea ezartzen duena, koronabirus-COVID-19 kasuak agertzearen ondoriozko osasun-krisia dela-eta bitarteko langileak izendatzeko deialdiak formalizatzeari buruzkoa; azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua aldi baterako etetea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudia aldatzea onartzen duena

Martxoaren 25eko 57/2020 Foru Aginduaren bidez aldi baterako eten zen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen aldatzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia.

Martxoaren 16ko 57/2020 Foru Agindu horren funtsa izan zen gurean COVID-19 koronabirusak kutsatutako kasuak agertu zirela, eta gero eta kasu gehiago egongo zirela aurreikusi zela eta, horrekin batera, erakunde honen jardun eremuari dagozkion zentro eta zerbitzuen erabiltzaileak bereziki zaugarriak direla, haiek behar bezala zaintze eta osasuna babesteko daukaten funtsezko eskubidea bermatze aldera. Eta betekizun hori bera zor genien erakundeko langileei ere.

COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera hori kudeatzeko, alarma egoera deklaratu zen martxoaren 14ko 483/2020 Errege Dekretuaren bidez. Salbuespen egoera hori sei aldiz luzatu da, eta azkena ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuak eratu zuen, zeinak 2020ko ekainaren 21eko 00:00ak arte luzatu zuen egoera hori.

Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez, deseskalada planean aurreikusitako fase guztiak gaindituz gero, ondoriorik gabe geratuko ziren probintzia, uharte edo lurralde unitateetan alarma egoera deklaratzearen ondorioz ezarritako neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun sailburuordearen ekainaren 17ko txostenean oinarrituta, zeinak adierazten baitu osasun egoerak eta egoera epidemiologikoak ahalbidetu egiten duela deseskalada planaren 3. fasea Euskadin gaindituz jotzea, lehendakariaren ekainaren 18ko 14/2020 Dekretuaren bidez adierazi da deseskalada planaren 3. fasea gainditu dela, eta ondoriorik gabe utzi dira alarma egoeraren esparruan hartutako neurriak, eta ekainaren 19ko 00:00etatik aurrera normaltasun berrian sartzea ezarri da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Ondoriorik gabe uztea martxoaren 16ko 57/2020 Foru Agindua, deiak formalizatzen dituena bitarteko langileak izendatzeko, COVID-19 koronabirus kasuak agertu izanak eragindako osasun krisiaren ondorioz, eta aldi baterako eteten duena azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita aldi baterako zerbitzuak emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea. .

BIGARRENA. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

HIRUGARRENA. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, Administrazioarekiko Auzibideen

Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 8a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ